

Erretiratuen soslai berria konstruktuko teoriko gisa

Izarne Lizaso Elgarresta eta Manuel Norbert Sanchez de Miguel
EHUko irakasleak eta UEUko kideak

Erretiratuen soslai berriaren inguruan hainbat egilek egindako ekarpenak aintzat hartu dira ikerketa honetan. Hain zuen ere, egun, egile batzuek erretiratuen soslaiaren aldaketaz hitz egiten dute. Ideia hori adierazteko, hainbat kontzeptu erabiltzen dituzte, besteak beste, *erretiratuen soslai berria* (Canes eta García, 1989), *zahartzaro berria* (Bazo, 1992; 1996; 2000) eta *erretiratu berria* (De Zayas, 1996). Erabili beharreko kontzeptuan ados ez egon arren, egile horien arabera, egungo erretiratua aurreko belaunaldietakoengandik bereizten da eta zenbait ezaugarri zehatz ditu: baliabide ekonomikoak izatea, hezkuntza-maila egokia izatea, gazte erretiratzea, osasun-egoera ona izatea eta jarduerak egitea, besteak beste. Egungo erretiratuak hainbat ezaugarri berezi eta esanguratsu dituela jakinik, gure proposamena *erretiratuen soslai berriaren* balizko ezaugarri soziodemografiko eta psikosozialak aztertzea da egungo erretiratuaren ezaugarriak izan daitezkeenak deskribatzeko.

This research is based on several authors' contribution to a new old adult profile. Some authors discuss about a change in this population. In order to state that idea, they use several concepts like *a new old adult profile* (Canes and García, 1989), *new aging* (Bazo, 1992; 1996; 2000) and *new retired* (De Zayas, 1996). Although the authors do not agree with the concept to be used, they do agree in stating that the new profile of old adult has some characteristics that distinguish them from former generations (i.e., economic resources, accurate education level, before mandatory retirement, good health and participation in activities). Therefore, bearing into account that old adults have special and significant distinctions, our suggestion is to analyse the sociodemographic and psychosocial characteristics of the new old adult profile in order to describe the current retired profile.

Sarrera

Biztanleriaren batez besteko adinari dagokionez, gaur egun Mendebaldeko gizartea gero eta zaharragoa da. Hala ere, erretiratzen diren gizabanakoak gero eta gazteagoak dira. Biztanleriaren zahartzea dela-eta, erretiroaren azterketa gai garrantzitsu bilakatu da gizarte osoarentzat, eta askok aztertu dute erretiroa. Batetik, hainbat teoria psikosozial garatu dira, bereziki, *Jardutearen teoria* (Havighurst, 1961) eta *Desloturaren teoria* (Cumming eta Henry, 1961); bestetik, gure gizartean gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, besteak beste, populazioaren zahartzea eta bizi-itxaropena luzatzea, erretiroa ezin daiteke zahartzaroaren sinonimotzat jo. Horren ondorioz, hainbat egilek erretiratuen soslaiaren aldaketaz hitz egiten dute. Artikulu hau testuinguru horretan kokatzen da hain zuzen ere eta ondorengo helburuak betetzeko asmoz garatua izan da: batetik, erretiratuen soslai berria garatzen hasi ote den aztertzea; bestetik, gure laginak erretiratuen soslai berriaren ezaugarri soziodemografikoak zein psikozosialak omen direnak islatzen ote dituen ikertzea; azkenik, lan honetan erretiratuen soslai berri bati buruzko eredu aurreale bat ere eraiki da.

Testuinguru teorikoa

Egungo erretiratuaren ezaugarriak zehazteko orduan, besteak beste, honako edukiak kontuan hartuko dira: batetik, erretirora egokitzeko prozesuaren teoria azaltzaileak; bestetik, faktore psikosozial eraginkorrak erretiro-prozesuan; gainera, erretiratuen soslai berriaren inguruan hainbat egileren ekarpenak; azkenik, erretiratuen soslai berriaren balizko ezaugarri soziodemografiko eta psikosozialak.

1.1. Erretirora egokitzeko prozesuaren teoria azaltzaileak

Erretiroari egokitzeko prozesua deskribatzeko orduan, bi teoria psikosozial erabiltzen dira, bereziki: batetik, *Jardutearen teoria* (Havighurst, 1961), eta, bestetik, *Desloturaren teoria* (Cumming eta Henry, 1961). *Jardutearen teoriaren* arabera, pertsona batek erretiroarekin langilearen rola galdu ostean lehen egiten zituen jarduerak mantendu edo horien ordezkioak aurkitzen baldin baditu, erretirora hobeto egokituko da. Alegia, aktibo egoten den pertsona, emankorra dena, etekin bat sortzen duena eta besteentzako baliagarria dena asebeteta sentituko da. Ondorioz, hobeto egokituko da erretirora. Gizabanakoak ordezkio jarduerarik egingo ez balu, ostera, ezereztasun-sentipena garatuko luke. *Desloturaren teoriaren* arabera, berriz, adineko pertsonak nolabaiteko gizarte-isolamendua nahi izaten du. Hain zuzen ere, planteatzen da adinduak gizarte-harremanen murrizketa eta lan-munduarekiko haustura nahi izaten dituela eta horiek lortzen dituen heinean asebeteta sentitzen dela. *Desloturaz* gain, pertsona nagusiak bere buruarekiko arreta-maila areagotu nahi izaten du, rol pasiboagoak desiratzen ditu, rol periferikoa, familiakoa eta lagunartekoa. Gizartearen eta pertsona nagusiaren arteko deslotura elkarrekikoa, saihestezina eta unibertatsala da.

1.2. Faktore psikosozial eraginkorrak erretiro-prozesuan

Asko dira erretiro-prozesuarekin erlazionatuta egon daitezkeen faktore psikosozialak. Ikerketa honetan, hainbat ikerketarekin bat eginik, garrantzitsutzat jo diren faktoreak izan dira aztergai. Hain zuzen ere, osasun fisikoaren eta

psikologikoaren garrantzia azpimarratu da. Ondoren, erretiratutako gizabanakoaren laguntza sozialaren eta gizarte-harremanen arteko erlazioa aztertu da. Horren ostean, aipatu gabe ezin utzi daitezkeen diru-sarrerak gogoratu dira. Azkenik, erretiroaren ondorioz astialdian eta aisialdian gertatzen diren aldaketak dira mintzagai.

1.2.1. Osasun fisikoa eta psikologikoa

Osasun fisikoaren gainbehera da zahartzaroaren alderik negatiboenetako bat. Hala ere, erretiroaren eta osasun fisikoaren arteko erlazioa aztertzerakoan beharrezkoa da zehaztapenak egitea. Alde batetik, baieztatu da osasun-egoera kaskarraren eta erretiroa hartzeko erabakiaren artean erlazioa dagoela (Arbelo eta Hernández, 1981; Mutchler, Burr, Massagli eta Pienta, 1999). Hala ere, azpimarratu behar da erretiroaren ondorioz gizabanakoaren osasun fisikoan aldaketarik gertatzearen inguruan datu kontraesankorrak daudela. Egile batzuek diote erretiroak gizabanakoaren osasun fisikoan negatiboki eragiten duela (Arbelo eta Hernández, 1981). Beste batzuek, berriz, positiboki eragiten duela (Kalish, 1991). Osasun psikologikoa gizabanakoaren egoera psikiko gisa definitzen da. Depresioa eta antsietatea dira horren adierazle nagusiak. Erretiroaren eta osasun psikologikoaren arteko erlazioa aztertu duten egileen arabera, erretiroak ez du zertan depresioa eragin (Drentea, 2002; Birren, 1996). Genero-desberdintasunak aztertu izan dira, eta horien inguruko datu kontraesankorrak aurkitu dira. Batzuen iritziz, gizonezkoek nahasketa psikologiko gehiago pairatzen dituzte (Gala, 1991; Hilbourne, 1999). Beste batzuen iritziz, berriz, emakumezkoek antsietate eta depresio-maila altuagoak pairatzen dituzte (Hollis, 1998; Pinquart eta Sörensen, 2001).

1.2.2. Laguntza soziala eta gizarte-harremanak

Erretiratzean harreman sozialak izateak duen garrantzia azpimarratzen dute hainbat ikerketak (Krause eta Borowsky-Clarck, 1997; Madrid eta Garcés de los Fayos, 1999; 2000; Pinazo, 2005). Horien bidez oinarritzko giza beharretako bat asetzearekin batera, laguntza soziala lortzen da. Laguntza soziala, laguntza, afektua eta baieztapena barneratzen dituen pertsona arteko konpromisoa da (Antonucci eta Jackson, 1989). Definizio horren arabera, harreman sozialetan oinarritzen den trukea litzateke laguntza sozialaren funtsezko ezaugarria. Laguntza sozialaren bidez gertaera estresagarri edo negatiboen aurrean babesa lortzen du gizabanakoak. Ildo horretatik, azpimarratzen da laguntza sozialak estresa edo bizialdaketa negatiboen eragina gutxitu eta pertsonaren osasun fisikoa eta psikologikoa zaindu ditzakeela (Díaz-Veiga, 1985; Martínez de la Iglesia, Espejo, Rubio, Pérula de Torres eta Albert, 1998; Aranda, Pando eta Aldrete, 2002). Laguntza sozialaren barruan, faktore kuantitatiboa edo objektiboa, eta, kualitatiboa edo subjektiboa bereizten dira (Meléndez, 1998). Lehenengoaren ezaugarriak, besteak beste, honako hauek dira: pertsona arteko kontaktuak, elkarrekintza sozialen sarea, tamaina, harreman kopurua eta maiztasuna. Bigarrenengoaren ezaugarriak, berriz, hautemandako laguntza soziala eta asebetetzea lirateke.

1.2.3. Diru-sarrerak

Asko dira erretiro-prozesuaren eta arlo ekonomikoaren arteko erlazioa aztertu duten autoreak (Smolak, 1993; Shaw, Patterson, Semple eta Grant, 1998; Hershey eta Mowen, 2000; Bahman, 2001; Ekerdt eta Kay Hackney, 2002; Muñoz eta Alix, 2002). Ikerketa gehienetan —guztietan ez esatearren— azpimarratzen da egoera ekonomikoa eta zehazki diru-sarrearen murrizketa dela erretiroarekin erlazionaturiko galerarik garrantzitsuenetako bat (Moragas, 1991; López, 1992a; Buendía eta Riquelme, 1994; Hinrichsen eta Clougherty, 2006). Egungo Estatu espainiarreko datuen arabera, batez besteko erretiro-pentsioa 610,77 €-koa da. Euskal Autonomia Erkidegoko azken datuen arabera (EUSTAT, 2004), 2003. urteko batez besteko erretiro-pentsioa 809,42 €-koa da, orain hamar urteko batez besteko erretiro-pentsioa, berriz, 499,57 €-koa zen. Beraz, hamar urtetan % 38 igo da erretiro-pentsioa. Gipuzkoari dagokionez (gure lagina han kokatzen baita), egungo batez besteko erretiro-pentsioa 784,37 €-koa da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino baxuxeagoa.

1.2.4. Astialdia eta aisia

Asko dira aisialdiko jarduerak egiteak erretiro-prozesua errazten duela dioten autoreak (Aragó, 1985; Gómez eta Azara, 1995; Castellón, Rubio eta Aleixandre, 1999; Belsky, 2001; Rosenkoetter, Garris eta Engdahl, 2001). Autore horien arabera, erretiratuek lan egiteari uzten diotenean, bete eta antolatu behar duten astialdi handia dute. Hori dela eta, azpimarratzen dute erretiro-prozesua erraztearren garrantzitsua dela aisialdiko jarduerak egitea baldin eta biziraupeneko oinarrizko beharrak asebeteta badaude. Zentzu horretan, hainbat jarduera mota egin ditzake erretiratuak: arlo fisikoarekin zein praktikokoekin zerikusia dutenak, jarduera kulturalak, izaera sozialeko jarduerak eta ezagutza trebatzen duten jarduera intelektualak. Erretiratuen astialdia betetzeko orduan jarduerak aldatzen ote diren zehaztean, ez dago adostasunik hainbat ikerketaren artean. Batzuen arabera, erretiro aurretik burutzen ziren jarduerak erretiro ondoren egiten jarraitzen dira (Rosenkoetter eta Garris, 2001). Beste batzuen arabera, berriz, erretiratu ondoren zenbait zereginetan denbora gehiago ematen da (Midanik, Soghikian, Ransom eta Tekawa, 1995; Hilbourne, 1999; Szinovacz, 2000).

1.3. Erretiratuen soslai berriaren inguruko ekarpenak

Egungo erretiratuaren ezaugarriak zehazteko orduan, ikertzaileen artean ez dago adostasunik, eta, erretiratuta dauden adinekoen soslaia nolakoa den azaltzean, kontzeptu ugari erabiltzen dira. Atal honetan hainbat autoreren ekarpenak kontuan hartuta, gaur egungo erretiratuen ezaugarrien inguruan bildutakoa laburbiltzen saiatuko gara. Hain zuzen ere, Canes-ek eta García-k (1989) gai honen inguruan argitaratutako ikerketa azalduko da. Ondoren, aztergai honetan gehien ikertu duen Bazo-ren (1992; 1996; 2000) ekarpenak aztertuko dira. Horrez gain, De Zayas-en (1996) ikuspegia izango da mintzagai. Azkenik, batetik Meléndez-en (1996) eta, bestetik, Sterns-en eta Hurd-en (1999) ideiak jasoko dira.

1.3.1. *Canes eta García (1989): erretiratuen soslai berria*

Aztergai den gaiaren inguruan argitaratutako lehenenatariko ikerketa izan zen, eta Canes-ek eta García-k (1989) 65 urtetik gorakoen egoera aldatzen ari dela dioen hipotesitik abiatuta, 2000. urterako 65 urtetik gorakoen artean *soslai berri* bat sortuko zela aurrean zuten. Honako hauek ziren soslai berriaren ezaugarri garrantzitsuenak: maila kultural altua, astialdi eta aisialdirako ohitura, bidaiatzeko nahia, gizarteak maitatua eta onetsia izateko nahia, osasuna zaintzea, erretirorako proiektuak egitea eta ahal den bitartean bere etxean bizitzea.

1.3.2. *Bazo (1992, 1996, 2000): zahartzaro berria*

Esan daiteke 2000. urtean Bazo-k egindako ikerketa aurreko ikerketen osagarria dela. Izan ere, aurreko belaunaldietatik bereizten diren erretiratuek osatzen duten *zahartzaro berri* baten existentziaren ideiatik abiatuta (Bazo, 1992; 1996), erretiratu berrien ezaugarriak buruzko ekarpenak eskaintzen ditu. Honako hauek dira horien ezaugarriak: biziarekin asebeteta sentitzea, gazte erretiratzea, hezkuntza-maila egokia izatea, osasun-egoera ona eta baliabide ekonomikoak izatea. Ezaugarri horiek dira, hain zuzen, egungo erretiratuak aurreko belaunaldietakoengandik bereizten dituztenak.

1.3.3. *De Zayas (1996): erretiratu berriak*

Erretiratu berriak kontzeptuaren barnean kokatzen ditu De Zayas-ek (1996), besteak beste: erretiro aurreratua hartu dutenak, lan-merkatutik adin ofiziala baino lehen erretiratzen direnak, zaharragoak diren gizabanakoen beharrak ez dituztenak, eta lan-merkatuaren dinamikan (batez ere, hezkuntza-mailan eta lan egiteko moduan) gertatu diren aldaketan ondorioz erretiratu behar izan dutenak. Ildo horretatik, erretiratuen *krisi sozial eta kulturala* aipatzen du: 65 urte inguruko parte-hartzaileen gehiengoak osasun-egoera ona duen arren, gizarteak pertsona horiei ez die *rol aktibo* edo *erabilgarririk* eskaintzen. Egungo erretiratuek pilulak eta bidaiak bainoago beraien bizitzari esanahia emango dion jarduera bat nahiago lukete. Krisi horren irtenbide gisa, “erretiratuen partaidetza sozial aktiboa” proposatzen du De Zayas-ek (1996: 2367), eta, hori sustatzeko, ezinbestekotzat jotzen du, bereziki, familia.

1.3.4. *Meléndez (1996); Sterns eta Hurd (1999): erretiratuaren soslai berriaren autokontzeptua*

Gizakiarentzat hainbat ikuspuntutatik lanak garrantzi handia duela kontuan izanik, egoera horrek autokontzeptuan eragin dezakeela planteatu da (Meléndez, 1996; Sterns eta Hurd, 1999). Izan ere, zenbat eta handiagoa izan lanarekiko identifikazioa (hutsune hori beste rol batzuekin betetzen ez bada), orduan eta handiagoa izango da langile-rola galtzearen ondorio kaltegarria, zeren ospea eta estatusa duen langile-roletik osperik eta estatus jakinik gabera pasatzen baita erretiratuaren rolaarekin. Horren arabera, erretiratu ostean, autokontzeptu baxua izatea espero liteke (Meléndez, 1996). Hala ere, gizartean gertatzen ari diren hainbat aldaketa kontuan hartuta (besteak beste, egungo erretiratuen bizi-baldintzen hobetzea), Sterns-ek eta Hurd-ek (1999) diote egun erretiratzen direnek autokontzeptu altua adieraziko luketela.

1.4. Erretiratuen soslai berriaren ezaugarri soziodemografiko eta psikosozialak

Arestian aipatu bezala, Canes-ek eta García-k (1989) auresan zuten 2000. urterako 65 urtetik gorakoen artean *soslai berri* bat sortuko zela. Planteamendu hori oinarritzat hartuta, erretiratuen soslai berria garatzen hasi ote den aztertu nahi da ikerketa honetan. Soslai berri horren balizko ezaugarriei dagokienez, eta hainbat autoreren planteamenduak abiapuntutzat hartuta, honako hau litzateke gure proposamena: soslai berriak ondoko ezaugarri soziodemografiko eta psikosozialak izango lituzke.

Balizko ezaugarri soziodemografikoek diru-sarrerekin, erretiratzeko adinarekin, hezkuntza-mailarekin eta bizitokiarekin dute zerikusia. Horren arabera, honako hauek dira erretiratuen soslai berriaren balizko ezaugarri soziodemografikoak: *baliabide ekonomikoak izatea* (erretiratuen diru-sarreraren batez bestekoa baino gehiago kobratzea), *gazte erretiratzea* (lan-merkatutik adin ofiziala baino lehen erretiratzea), *hezkuntza-maila egokia izatea* (oinarrizko hezkuntza izatea) eta *beren etxean bizitzea*, besteak beste. Egile horien ekarpenetan oinarrituta, gure ikerlanaren helburuetako bat hauxe izan da: gure laginak erretiratuen soslai berriaren ezaugarri soziodemografikoak omen direnak islatzen ote dituen aztertzea.

Balizko ezaugarri psikosozialak, berriz, osasunarekin —fisikoarekin, psikologi-koarekin eta sozialarekin—, jarduerekin eta autokontzeptuarekin daude erlazionatuta. Arestian azaldutako hainbat egileren planteamenduak (Canes eta García, 1989; Bazo, 1992; 1996; 2000; De Zayas, 1996; Sterns eta Hurd, 1999; Moen, Field, Quick eta Hofmeiser, 2000; Kim eta Moen, 2001a) eta OMEren osasunaren¹ definizioa kontuan hartu dira gure proposamena egiteko orduan. Horren arabera, honako hauek dira erretiratuen soslai berriaren ezaugarri psikosozialak: osasun fisiko ona (ez luke gaixotasun fisiko larririk izango eta bere osasun-egoera positiboki hautemango luke), osasun psikologiko ona (depresio- eta antsietate-maila baxua eta bizi-asebeteta sentitzea), osasun sozial ona (erlazio sozialen maiztasuna altua eta erlazio horiekin asebeteta sentitzea), jarduerak egitea (aisialdikoak, fisikoak edo boluntario gisa) eta autokontzeptu positibo altua eta negatibo baxua. Erretiratuen soslai berriaren ezaugarriak zehaztu ostean, gure ikerlanaren bigarren helburua hauxe izan da: gure laginak ezaugarri horiek ote dituen aztertzea. Horretarako planteatu diren hipotesi nagusiak honako hiru hauek izan dira: batetik, aurreko ekarpenetan oinarrituta (Canes eta García, 1989; Bazo, 1992; 1996; 2000; De Zayas, 1996), Bergaran eta Donostian aztertutako azpitaldean erretiratuen *soslai berria* sortzen hasi dela erakusten duten adierazle soziodemografiko eta psikosozialak aurkitzea espero zen. Ildo horretatik, gure ustez, erretiratuen *soslai berriarekin* zerikusia izan dezaketen aldagai soziodemografikoak eta psikosozialen arteko erlazioa (adibidez, diru-sarrerak eta bizi-asebetetze altua izatea, hezkuntza-maila eta depresio zein antsietate baxua izatea edota gazte erretiratzea eta bizi-asebetetze baxua izatea) esanguratsua izatea espero zen. Horrez gain, aldagai psikosozialen arteko erlazioa (esaterako, antsietatearen

1. Gaixotasun eza ez ezik, ongizate fisiko, psikiko eta sozial osoa dela osasuna (Castellón eta Sánchez del Pino, 2003).

eta depresioaren, bizi-asebetetzearen, osasun-egoeraren, laguntza sozialaren, sentimendu negatiboan, eguneroko jarduerak egiteko zailtasunen eta autokontzeptu negatiboaren artekoa) ere esanguratsua izatea espero zen; azkenik, gure proposamenaren arabera, erretiratuen *sos-lai berriaren* balizko konstruktua teoriakoak zenbait ezaugarri soziodemografiko (adibidez, baliabide ekonomikoak izatea eta gazte erretiratzea) eta psikosozial (esaterako, osasun fisiko ona izatea, hau da, ez luke *gaixotasun fisiko larririk izango* eta *bere osasun-egoera positiboki hautemango luke*) esanguratsu izango litzuke.

2. Metodoa

2.1. Lagina

Lagina bi lekutako erretiratutak osatzen zuten, alde batetik, Bergarako (Gipuzkoa) "San Joxepe" erretiratuen elkarteak eta, bestetik, Donostiako (Gipuzkoa) udalaren erretiratuen etxeetakoak. Bergara udalerririk 2003. urtean 14.965 biztanle zituen (EUSTAT, 2001). Elkartek 1.642 bazkide zituen, eta herriko 65 urtetik gorakoak % 58 ordezkatzeko zuten (San Joxepe, 2003). Gipuzkoako hiriburuak, berriz, 178.377 biztanle zituen (EUSTAT, 2001). Udalaren erretiratuen etxeen kasuan (lagina handik hartu zen), bazkideen kopurua 4.999 zen (Camio eta García, 2002), eta Donostiako erretiratuen etxe guztien % 28 ordezkatzeko zuten.

Guztira, 161 parte-hartzailek osatu zuten lagina: 80 emakume (% 49,7) eta 81 gizon (% 50,3), aurretik aipatutako erretiratuen etxeetako bazkideak gehienak. Horietatik, 112 parte-hartzaile (% 69,6) Bergaran, eta gainerakoak, hau da, 49 (% 30,4) Donostian elkarrizketatu ziren. Elkarrizketaren hizkuntzari dagokionez, 135 (% 83,85) gaztelaniaz izan ziren eta, 26 (% 16,15), berriz, euskaraz. Ikerlan honetan erabili den laginketa intzidentala izan da.

Elkarrizketatuen batez besteko adina 66 urte (DT = 6,35) izan zen. Adinari dagokionez, 52 eta 88 urte bitartekoa zen. Horren arabera, laginaren 89 parte-hartzaile (% 55,3) 66 – 79 urte bitartean biltzen ziren. Beste 69 parte-hartzailek (% 42,9), berriz, 65 urte baino gutxiago zituzten. Azkenik, 3 parte-hartzaile baino (% 1,9) ez ziren 80 urtetik gorakoak. Erretiro-adinari dagokionez, laginaren zati handiena (% 37) 61 – 64 urteen artean erretiratu zen eta erretiratuta zeramaten denborari dagokionez gehiengoak 5 urte baino gutxiago zeraman erretiratuta.

2.2. Tresnak

Planteatutako hipotesiak egiaztatu eta helburuei heldu ahal izateko, honako tresna hauek erabili ziren, ordena honetan: SPMSQ, *Short Portable Mental Status Questionnaire* (Pfeiffer, 1975; Fernández-Ballesteros eta Guerrero, 1984), galera kognitiboa aztertzeko galde-sorta laburra *screening* gisa erabili zen (esaterako, ea noiz jaio zen, alegia, eguna, hilabetea eta urtea); *Ad Hoc* elkarrizketa (adibidez, adina, sexua, egoera zibila, ikasketa-maila, diru-sarrerak, bizitzan zehar burututako lanbide nagusia, zenbat urterekin erretiratu ziren eta zenbat denbora zeramaten erretiratuta, erretiro mota, eta abar); aisialdiko jardueri buruzko galde-sorta laburra; GADS, *Goldberg Anxiety and Depression Scale* (Goldberg, Bridges eta Duncan-Jones, 1988; Montón, Pérez-Echeverría eta Campos, 1993), antsietatea eta depresioa aztertzeko *screening* gisa (adibidez, azkenaldian urduri

izan den, lo hartzeko arazorik izan duen, eta abar). Erantzun-heina 0-9 artekoa zen. Antsietatea izan zezaketen pertsonen egoera diagnostikatzeko *HAS, Hamilton Anxiety Scale* (Hamilton, 1969; Carrolles, Costa, Del Ser eta Bartolomé, 1986) galde-sorta erabili zen. Paraleloki, depresioa izan zezaketenen egoera diagnostikatzeko GDS/30, *Geriatric Depression Scale* (Brink, Yesavage, Lum, Heersema, Adey eta Rose, 1982; Montorio, 1994) erabili zen; PGC, *Philadelphia Geriatric Center Morale Scale* (Lawton, 1975; Montorio, 1994) bizi-asebetetzearen eskala (esaterako, bakarrik sentitzen den edota egungo egoeran asebeteta edo asebetegabe sentitzen den). Erantzun-heina 0-16 artekoa zen; autokontzeptuaren bi dimentsioak neurtzeko galde-sorta; harreman sozialen maiztasuna eta asebetetzea neurtzeko galde-sorta; COOP-WONCA, *Darmouth COOP Functional Health Assessment Charts* (Nelson, Wasson eta Kirk, 1987; Lizán, 1999) osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea neurtzeko (adibidez, sentimendu negatiboak edo eguneroko jarduerak egiteko zailtasunak). Erantzun-heina 0-5 artekoa zen.

2.3. Prozedura

Lehenik eta behin, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena Sailaren eta Bergarako erretiratu etxearen artean hitzarmen bat sinatu zen 2003ko uztailaren 4an. Horri esker, lekuan lekuko arduradunekin hainbat bilera egin ziren ikerketa garatzeko asmoarekin.

Horrez gain, epaile arteko adostasuna erabiliz aldagai soziodemografikoak neurtzeko galde-sorta (*Ad Hoc*) gaztelaniatik euskarara itzuli zen (iraila-urria). Guztira, bost epailek parte hartu zuten, guztiak Psikologiako irakasle elebidunak ziren. Item bakoitzeko % 60tik gorako adostasun-maila lortuz gero (alegia, 5etik 3 epaile ados izanik), aintzat hartu zen gehiengoak proposatutakoa. Behin protokoloa adostu ostean, elkarrizketaren inkesta pilotua egin zen (urria), elkarrizketa-eredu egokiena lortzea zen xedea. Helburuen artean, alde batetik, elkarrizketan zehar ulermen-arazorik ez izatea, eta bestetik, elkarrizketaren iraupena egokia izatea, adineko pertsonak izango zirelako aztergai, eta aipatu bi faktore horien kontrol ezak erantzunetan eragin ezkorra izan zezakeelako. Horregatik pentsatu zen elkarrizketaren iraupen egokia 40-45´ izango zela, elkarrizketa luzeago batek nekea eragin baitzezakeen adineko pertsonarengan. Horretarako, elkarrizketaren itemak zuzendu ziren, hizkuntza ulerterraz erabiltzeko xedearekin. Horrez gain, itemen ordena ere kontuan izan zen, eta erlazonaturiko itemak elkarren ondoren kokatu ziren koherentzia mantentzeko. Gainera, elkarrizketa-garaian pentsiorik jasotzen ez zuena lan-merkatutik at zegoela kontsideratu zen; ondorioz, ez zitzaizkion erretiroarekin zerikusia zuten zenbait item proposatu. Elkarrizketaren erritmoa erraztearren, item horiek “*” sinboloarekin adierazi ziren. Gainera, elkarrizketatzaileek 12 orduko ikastaro teoriko-praktikoa egin zuten 4 egunetan zehar (urria). Azkenik, elkarrizketak egin ziren (azaroa-abendua). Elkarrizketen iraupena, batez beste, 42,16 minutukoa izan zen.

3. Emaitzak

3.1. Erretiratuen soslai berriarekin bat datozen ezaugarri soziodemografikoak eta psikosozialak

Lehenengo hipotesian planteatzen zen, Bergarako eta Donostiako azpitaldeetan erretiratuen soslai berria sortzen hasi delako adierazle soziodemografikoak eta psikosozialak egongo zirela.

	Gizonezkoak % 51,31 n=81		Emakumezkoak % 49,69 n=80		Guztira % 100 N=161	
	%	n	%	n	%	N
DIRU-SARRERAK						
< 359 €	1,2	1	7,5	6	4,3	7
360 € - 599 €	1,2	1	31,3	25	16,1	26
600 € - 740 €	9,9	8	13,8	11	11,8	19
741 € - 1020 €	23,5	19	13,8	11	18,6	30
> 1021 €	64,2	52	33,8	27	49,1	79
HEZKUNTZA-MAILA						
Lehen mailako ikasketak (amaitu gabe)	33,3	27	43,8	35	38,5	62
Lehen mailako ikasketak (amaituak)	42,0	34	43,8	35	42,9	69
Bigarren mailakoak	19,8	16	6,3	5	13	21
Erdi-mailakoak/ Unibertsitate-ikasketak	3,7	3	5,0	4	4,3	7
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	1,2	1	1,3	1	1,2	2

1. taula. Erretiratuen soslai berriaren zenbait datu soziodemografiko.

Ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, erretiratuen soslai berriarekin bat datozen ezaugarrien artean honakoa azpimarra daiteke; laginaren % 18,6k 741 € eta 1020 € bitarteko batez besteko pentsioa jasotzen du hilean eta % 49,1ek 1021 € baino gehiago. Datu horien arabera, elkarrizketatuen gehiengo nagusia batezbestekoaren gainetik kokatzen da, 737,12 € (EUSTAT, 2004). Izan ere, % 67,7k hilean 740 € baino gehiagoko pentsioa jasotzen du. Erretiro-adinari dagokionez, lan-merkatuan kotizatu dutenen artean, erretiroaren batez besteko adina 60 urte da (DT= 5,13). Generoen arteko desberdintasun esanguratsuak izan dira, gizonezkoen % 87,7k batezbestekoaren gainetik diru-sarrerak ditu. Emakumezkoen artean, berriz, % 47,6k baino ez du batezbesteko hori gainditzen $\chi^2(4)=36,239$ $p < .001$, $C=.429$.

Hezkuntza-mailari dagokionez, % 42,9k, lehen mailako ikasketak ditu. Bizitokiari dagokionez, elkarrizketatuak beren etxean bizi ziren.

Erretiratuen soslai berriarekin bat datozen ezaugarri psikosozialei dagokienez, berriz, elkarrizketatuen osasun fisikoari dagokionez, % 66,5ek ez zuen gaixotasunik; aldiz, % 33,5ek gaixotasunen bat edo gehiago pairatzen zuen. Gainera, parte-hartzaileek egoera fisiko eta osasun-egoera orokorra ona dute (M= 3,03;

DT= 0,80 eta M= 2,95; DT= 0,78). Azkenik, osasun-egoera ona hautematen dute (M= 2,95, DT= 0,78). Horrez gain, egindako analisi osagarrietan bizimoduari buruz eginiko galderen erantzunetan generoen arteko ezberdintasunak aurkitu dira: batetik, emakumezkoen % 66,3k eta gizonezkoen % 19,9k ez dute alkoholik edaten (M= 1,37; DT= 0,56 eta M= 2,23; DT= 0,90, hurrenez hurren), $t(159) = -7,277$ $p < .001$; bestetik, emakumezkoen % 47,5ek eta gizonezkoen % 32,1ek “nahikoa” zaintzen dute beren elikadura (M= 3,56; DT= 1,02 eta M= 2,95; DT= 1,25, hurrenez hurren), $t(159) = 3,382$ $p < .001$.

	Gizonezkoak	Emakumezkoak		
	M (DT)	M (DT)	t	p
Depresioa	0,36 (0,94)	0,85 (1,75)	-2,22	<.05
Antsietatea	1,36 (0,88)	1,98 (1,25)	-3,613	<.01
Bizi-asebetetzea	12,43 (2,26)	10,49 (3,88)	3,892	<.01

2. taula. Erretiratuen soslai berriaren osasun psikologikoaren adierazle nagusien emaitzak generoaren arabera.

Erretiratuen osasun psikosozialaren adierazleak diren antsietateari, depresioari eta bizi-asebetetzeari dagokienez, oro har, batez besteko emaitzak kontuan izanik, antsietatearen (≥ 5) eta depresioaren (≥ 3) batez bestekoak baxuak izan dira, (M= 1,37; DT= 2,17 eta M= 0,60; DT= 1,41), hurrenez hurren. Bizi-asebetetzea, oro har, nahiko altua da (M= 11,46; DT= 3,30). Horrez gain, egindako analisi osagarrietan generoen arteko diferentzia esanguratsuak aurkitu dira. Hala, emakumezkoek nahiz eta depresiorik ez adierazi, maila altuagoa dute (M=0,85; DT= 1,75) gizonezkoek baino (M=0,36; DT= 0,94), hurrenez hurren, $t(159) = 2,22$ $p < .05$. Horrez gain, emakumezkoek sentimendu negatibo gehiago dute (M=1,98; DT= 1,25) gizonezkoekin erkatuz (M=1,36; DT= 0,88), hurrenez hurren, $t(159) = 3,613$ $p < .001$. Azkenik, bizi-asebetetzeari dagokionez ere, nahiz eta emakumezkoek bizi-asebetetze erlatiboki ona izan, gizonezkoen aldean, maila kaskarragoa dute (M= 10,49; DT= 3,88 eta M= 12,43; DT= 2,26), hurrenez hurren, $t(159) = -3.892$ $p < .001$.

Erretiratuen osasun sozialari dagokionez, batez bestekoak kontuan izanik, oro har, harreman sozialen maiztasuna eta asebetetzea altuak dira (M = 2,73; DT= 0,27 eta M= 2,80; DT= 0,28), hurrenez hurren. Gainera, laguntza sozial handia dute (M = 1,90; DT=0,90). Egindako analisi osagarrietan, beste behin genero arteko diferentzia esanguratsuak aurkitu ziren. Nahiz eta emakumezkoek laguntza sozial maila, oro har ona izan, gizonezkoen aldean, baxuagoa jasotzen dutela adierazi dute (M= 2,08; DT= 0,99 eta M= 1,74; DT = 0,77), hurrenez hurren, $t(159) = -2,391$ $p < .05$.

Erretiratuek egiten dituzten jardueren batez besteko puntuazioak kontuan hartuta, esan daiteke jarduera garrantzitsuenak aisialdikoak direla (M= 3,37; DT= 0,57). Ondoren, osasuna zaintzarekin zerikusia duten jarduerak daude (M= 2,97; DT= 0,81). Horren ostean, maila berean, jarduera intelektualak (M= 2,74; DT= 0,83) eta etxeko jarduerak (M= 2,74; DT= 0,83). Egindako analisi osagarrietan, beste behin ere, generoari dagokionez, bi datu azpimarra daitezke: alde batetik, espero

zitekeenaren antzera, emakumezkoek etxeko jarduera gehiago egiten dituzte gizonezkoek baino (M= 3,05; DT=0,64 eta M=2,43; DT= 0,89), hurrenez hurren, $F(1,160)= 25,538$ $p < .001$; bestetik, emakumezkoek ikasketa-jarduera gehiago egiten dituzte gizonezkoek baino (M= 1,81; DT= 0,83 eta M= 1,49 DT= 0,72), hurrenez hurren, $F(1,160) = 6,750$ $p < .010$.

Azkenik, erretiratuaren autokontzeptuari dagokionez, batez bestekoak kontuan hartuta, gure lagineko parte-hartzaileek autokontzeptu negatibo maila baxua (M= 1,24; DT= 0,40) eta autokontzeptu maila altua (M= 3,99; DT= 0,86) erakusten dituzte.

3.2. Erretiratuaren soslai berriarekin erlazionatutako ezaugarri soziodemografikoen eta psikosozialen arteko asoziazio-neurketak

Bigarren hipotesian planteatzen zen erretiratuaren *soslai berriarekin* zerikusia izan dezaketen balizko ezaugarri soziodemografikoen eta psikosozialen arteko erlazioa esanguratsua zela.

Emaitza esanguratsuak eta, nolabait, indartsuak honako hauek izan dira: batetik, diru-sarrera altuena dutenek bizi-asebetetzearen maila hobea [$\chi^2(8)=27.685$; $p < .001$; $C= .383$], autokontzeptu positibo altuagoa [$\chi^2(8)=23.215$; $p < .003$; $C= .404$] eta jarduerak egiteko zailtasunik ez izatea azpimarratu dira [$\chi^2(16)=37.655$; $p < .002$; $C= .435$]; bestetik, erretiro-adin goiztiarra izan dutenek, berriz, bizi-asebetetzearen maila baxuagoa dute [$\chi^2(6)=12.415$; $p < .05$; $C= .307$].

	Depresioa	Bizi-asebetetzea	Sentimendu negatiboa
Antsietatea	.480**	-.542**	.608**

** $p < .01$

	Bizi-asebetetzea	Autokontzeptu negatiboa	Sentimendu negatiboak	Eguneroko jarduerak (zailtasunak)
Depresioa	-.542**	.406**	.472**	.413**

** $p < .01$

	Autokontzeptu negatiboa	Sentimendu negatiboa	Mina	Eguneroko jarduerak (zailtasuna)
Bizi-asebetetzea	-.465**	-.518**	-.447**	-.452**

** $p < .01$


3. taula. Erretiratuaren soslai berriaren ezaugarri psikosozialen arteko asoziazio-neurketa esanguratsuenak.

Bigarren hipotesiaren barruan ere planteatzen zen erretiratuaren *soslai berriarekin* zerikusia izan dezaketen balizko ezaugarri psikosozialen arteko erlazioa esanguratsua zela. Emaitza esanguratsuak eta, nolabait, indartsuak honakoak izan dira: batetik, antsietatea depresioarekin eta sentimendu negatiboarekin erlazionatzen da ($r = .480$, $r = .608$), hurrenez hurren, $p < .01$.

Horrez gain, korrelazioa negatiboa da bizi-asebetetzearekin ($r = -.542$, $p < .01$); bestetik, depresioa, autokontzeptu negatiboarekin, sentimendu negatiboekin eta eguneroko jarduerak egiteko zailtasunarekin erlazionatzen da, ($r = .406$, $r = .472$, $r = .413$), hurrenez hurren $p < .01$. Gainera, korrelazioa negatiboa da bizi-asebetetzearekin ($r = -.542$, $p < .01$); azkenik, bizi-asebetetzearen eta honako aldagai hauen arteko korrelazioa negatiboa da: autokontzeptu negatiboarekin, sentimendu negatiboekin, minarekin eta eguneroko jarduerak egiteko zailtasunarekin ($r = -.465$, $r = -.518$, $r = -.447$, $r = -.452$), hurrenez hurren, $p < .01$.

3.3. Erretiratuen soslai berriaren ezaugarriak

Hirugarren hipotesian planteatzen zen erretiratuen *soslai berriaren* balizko konstruktua teorikoak zenbait ezaugarri soziodemografiko eta psikosozial esanguratsu izango zituela. Horretarako, eredu alternatiboz eredu alternatibo ibili ginen partsimonia-printzipioaren bila. Gure helburua zen identifikazio onena lortzea ahalik eta aldagai kopuru txikiena erabiliz.



* $p > .05$ =Ereduaren identifikazio ona (AMOS 5.0 bertsioa).

1. irudia. Erretiratuen soslai berriarekin erlazionatutako balizko dimentsioak. Berresteko faktore-analisia (hirugarren eredu).

AMOS programan hipotesi nuluak esan nahi du ezen konstruktuko teorikoaren barnean agertzen diren aldagaien artean erlazioa dagoela. Hori guztia kontuan izanik, honako hau azpimarra daiteke: batetik, hipotesi nulua baztertu da, probabilitatea .05 baino altuagoa baita; bestetik, egokitzapen-neurria eta erroreak onargarriak dira; Bentler-ek (1990) zioen bezala, egokitzapen-errorea unitatearen inguruan dagoelako.

Browne-k eta Cudeck-ek (1993) zioten bezala, errorea, berriz, 0.08 baino txikiagoa delako; horrez gain, ezkutuko aldagaiaren bariantzaren azalpenari dagokionez, bizi-asebetetzearen maila altuak eta autokontzeptuaren maila baxuak bariantzaren erdia baino gehiago azaltzen dute. 1. irudian behin betiko ereduak agertzen da, lehen eta bigarren ereduak aztertu ondoren.

4. Ondorioak

Azpimarra daiteke gure laginak badituela hainbat egilek aipatutako egungo erretiratuaren balizko ezaugarri soziodemografikoak (Canes eta García, 1989; Bazo, 1996, Mota eta López, 1998, Bazo, 2000). Hain zuzen ere, laginaren gehiengoa diru-sarrerei dagokienez, batez bestekoaren gainetik kokatzen da; erretiro-adin ofiziala baino lehen erretiratzen da; oinarrizko ikasketak ditu eta bere etxean bizi da. Erretiratuaren soslai berriaren balizko ezaugarri psikosozialen emaitzei dagokienez, gure ikerketako parte-hartzaileek osasun-egoera ona dute. OMEren osasunaren definizioa aintzat hartuz, ez dute gaixotasun fisiko larririk eta beren osasun-egoera positiboki hautematen dute; bestetik, egoera psikologiko onean daude, hau da, depresio- eta antsietate-maila baxua dute eta bizi-asebeteta sentitzen dira; gainera, maiz izaten dituzte erlazio sozialak, erlazio horiekin asebeteta sentitzen dira eta laguntza sozial handia dute; batez ere aisialdiko jarduerak eta osasun fisikoarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzte; azkenik, autokontzeptu positibo altua eta autokontzeptu negatibo baxua adierazten dituzte. Emaitza horiek adierazten dute gure laginean parte hartu dutenek betetzen dituztela hainbat autorek (Canes eta García, 1989; Bazo, 1992; 1996, 2000; De Zayas, 1996; Meléndez, 1996; Moen eta haren laguntzaileak, 2000; Sterns eta Hurd, 1999; Kim eta Moen, 2001a) erretiratuaren soslai berriarentzat aurrean dituzten ezaugarriak. Aipaturiko emaitza horiez gain, adin-tarte horretan gutxitan aztertu diren faktore interesgarriak izango ditugu oraingo honetan eskura. Horren adibide dira generoen artean aurkitu diren desberdintasunak. Ildo horretatik, honako emaitza hauek azpimarra daitezke, besteak beste: batetik, emakumezkoek —gizonezkoen aldean— ohitura osasungarriagoak dituzte; bestetik, emakumezkoek nahiz eta depresiorik ez adierazi, maila altuagoa dute gizonezkoek baino; azkenik, beste behin ere, emakumezkoek, nahiz eta laguntza sozial maila, oro har ona izan, gizonezkoen aldean, baxuagoa jasotzen dute. Hori guztia kontuan hartuta, adinekoen artean generoaren ikuspegiak garrantzi berezia eskuratzen duela uste dugu. Izan ere, erretiroaren inguruan egindako ikerketa gehienak gizonezkoengan oinarritu dira eta, ondorioz, emakumezkoen ikuspegia ez da behar bezala aztertu. Egungo besteak beste, lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketak direla medio, hau da, emakumeen inkorporazioa dela medio, horien erretiroa aztertzea erronka interesgarria da. Hala, generoen arteko desberdintasunik ote dagoen ezagutzeko aukera berria izango da.

Erretiratuen soslai berriaren ezaugarri soziodemografikoen artean, badirudi diru-sarrerak izatea erlazionatua dagoela bizi-asebetetze altuarekin, autokontzeptu positiboarekin eta jarduera sozialak egiteko zailtasun maila baxuagoarekin. Goiz erretiratzea, berriz, bizi-asebetetzearen maila baxuagoarekin erlazionatzen da. Erretiratuen soslai berriaren ezaugarri psikosozialen artean, berriz, badirudi osasun psikologikoaren adierazle diren antsietatearen, depresioaren eta bizi-asebetetzearen maila baxuak sentimendu negatiboekin, eguneroko jarduerak egiteko zailtasunekin, autokontzeptu negatiboarekin eta minarekin erlazionatzen direla. Gure ikuspegiaren arabera, arestian aipaturiko nahasketa emozionalak identifikatu eta maneiatzea garrantzitsua litzateke erretirora arrakastaz egokitzeko eta bizi-aro berriaz positiboki gozatu ahal izateko. Hala, erretiratu berriak erretiroa aukera pertsonal berriak gauzatzeko, ikasketa-maila hobetzeko, zenbait jarduera egiteko edota jarrera aktiboagoa izateko hautemango luke.

Azkenik, guk proposatzen dugun konstruktuko teoriko berriaren balizko ezaugarrien artean, bizi-asebeteta sentitzea eta autokontzeptu negatibo maila baxua izatea azpimarratu behar dira. Horien ostean, antsietate- eta depresio-maila baxua sentitzea eta eguneroko jarduerak egiteko zailtasunik ez izatea. Amaitzeko, osasun-egoera ona, diru-sarrera altuak eta laguntza sozialaren maila altua izatea.

Erretiratuen soslai berria konstruktuko teoriko gisa izendaturiko artikulua gai berri baten aurrean gaudela jakinarazten du. Hau da, zahartzaroan, oro har, eta erretiratuen artean, zehazki, azken urteotan hainbat aldaketa sozial gertatu direla kontuan izan behar da, besteak beste, bizi-itzaropena luzatzea eta biztanleria zahartzea, osasun-egoera hobetzea, hezkuntza-maila altuagoa izatea, estatus sozio-ekonomikoa hobetzea, eta abar. Hori guztia kontuan izanik, hainbat egilek erretiratuaren soslaiaren aldaketaz hitz egiten dute. Ikerketa honen helburu nagusia izan da berresteko analisi faktorialaren bidez proposamen hori egiaztatzea. Hala ere, ikerketaren mugei dagokienez, aipatu behar da laginketa intzidentala izan dela, eta, ondorioz, berezia izan dela kontsidera daiteke. Ikerketaren erabilgarritasuna eta erabilera sozialari buruz bi ideia aipatu nahi dira: bata, alde teorikoarekin du zerikusia, hau da, konstruktuko teoriko berri baten existentzia azpipopulazio batean proposatzen da, eta besteak, berriz, alde praktikoarekin edo aplikagarritasunarekin du zerikusia, alegia, erakundeen arteko lankidetzaren sendotzeko baliagarria dela pentsatzen dugu. Azkenik, etorkizunari begira ate berriak irekitzen direla uste dugu: laginaren tamaina handiekin lan eginez, testuinguru ekologiko desberdinetan emaitzak errepikatzen diren aztertuz eta azpipopulazioetan konparaketak eginez.

Bibliografia

- Antonucci, T. C. eta Jackson, J. S. (1989): "Apoyo social, eficacia interpersonal y salud: una perspectiva del transcurso de la vida", in L. Carstensen eta B. Edelstein (arg.), *Gerontología clínica*, Martínez Roca, Bartzelona, 129-147.
- Aranda, C.; Pando, M. eta Aldrete, M. G. (2002): "Jubilación, trastornos psicológicos y redes sociales de apoyo en el adulto mayor jubilado", *Revista de Psiquiatría de la Facultad de Medicina*, **29**(3), 169-174.
- Arbelo, A. eta Hernández, G. (1981): *Demografía sanitaria de la ancianidad*, Karpos, Madril.

- Asociación San Xosepe. (2003): *Memoria del proyecto presentado por la Asociación San Xosepe de Bergara al concurso para la "Reconversión de los Hogares de Jubilados de Gipuzkoa"* (argitaratu gabeko dokumentua).
- Bahman, B. (2001): Factors affecting faculty retirement decisions. *Social Science Journal*, **38**(2), 297-305.
- Bazo, M. T. (1992): *La ancianidad del futuro*. Bartzelona: SG.
- , (1996): "Aportaciones de las personas mayores a la sociedad: análisis sociológico", *Reis*, **73**(209-222).
- , (1998): "Apoyo familiar y tercera edad", *Geriátrika*, **14**(2), 58-62.
- , (1999): "La necesidad de atender y abordar el final laboral de todo trabajador: hacia una nueva labor profesional del responsable de recursos humanos en el tercer milenio", *Estudios Financieros*, **197-198**, 163-184.
- , (2000): "La jubilación desde la perspectiva macro y micro", *Políticas sociales para las personas mayores en el próximo siglo: Actas del Congreso Murcia. 10-12 de Noviembre de 1999*, Universidad de Murcia, 269-294.
- Belsky, J. (2001): *Psicología del envejecimiento*, Paraninfo, Madrid.
- Bentler, H. (1990): "Comparative Fit Indices in Structural Models", *Psychological Bulletin*, **107**, 238-246.
- Birren, J. E. (1996): *Encyclopedia of Gerontology. Age, Aging and the Aged* (2. liburukia), Academic Press, New York.
- Brink, T. L.; Yesavage, J. A.; Lum, O.; Heersema, P.; Adey, M. eta Rose, T. L. (1982): "Screening tests for geriatric depression", *Clinical Gerontologist*, **1**, 37-44.
- Browne, M. W. eta Cudeck, R. (1993): "Alternative ways of assessing model fit", in K. A. Bollen eta J. S. Long (arg.), *Testing structural equation models*, Sage, Newbury Park, 136-162.
- Buendía, J. eta Riquelme, A. (1994): "Jubilación, salud y envejecimiento", in J. Buendía (arg.), *Envejecimiento y psicología de la salud*, Siglo XXI, Madrid, 69-87.
- Camio, S. eta García, A. (2002): *Informe de los programas de dinamización de los hogares municipales de Donostia-San Sebastián* (argitaratu gabeko dokumentua).
- Canes, C. eta García, R. M. (1989): "Perfil del anciano del año 2000", *Revista Española de Geriatría y Gerontología*, **24**(5), 335- 341.
- Carrobles, J. A.; Costa, M.; Del Ser, T. eta Bartolomé, P. (1986): *La práctica de la terapia de conducta*, Promolibro, Valencia.
- Castellón, A.; Rubio, R. eta Aleixandre, M. (1999): "Nivel de autoestima en los mayores tras un programa de ocio", *Revista Española de Geriatría y Gerontología*, **34**(4), 225-229.
- Cumming, E. eta Henry, W. E. (1961): *Growing Old: The process of Disengagement*, Basic Books, New York.
- De Zayas, I. (1996): "El reto de la atención socio-asistencial de los nuevos jubilados", *IV Jornadas de Intervención Social del Colegio Oficial de Psicólogos de Madrid* (3. liburukia 2365.-2373. or.), Ministerio de Asuntos Sociales, Instituto Nacional de Servicios Sociales (INSERSO), Madrid.
- Díaz Veiga, P. (1985): *Redes sociales y comportamiento afectivo en ancianos*, (Lizentziaturako memoria argitaragabea), Universidad Autónoma de Madrid.
- Drentea, P. (2002): "Retirement and mental health", *Journal of Aging and Health*, **14**(2), 167-194.
- Ekerdt, D. J. eta Kay Hackney, J. (2002): "Workers' ignorance of retirement benefits", *The Gerontologist*, **42**(4), 543.
- EUSTAT. (2001): *Encuesta de la población activa*, Eusko Jaurlaritza, Bilbo.
- Fernández-Ballesteros, R. eta Guerrero, M. A. (1984): *Adaptación de Instrumentos de Evaluación para Ancianos*, I Congreso de Evaluación Psicológica, Madrid.

- Gala, C. (1991): "El jubilado: su mundo y sus problemas", in Batzuen artean (arg.), *El jubilado ante su futuro. Plan de preparación a la jubilación*, INSERSO, Madrid, 93-115.
- Goldberg, D.; Bridges, K. eta Duncan-Jones, P. (1988): "Detecting anxiety and depression in general settings", *British Journal of the Medicine Psychologist*, **97**, 897-899.
- Gómez, L. eta Azara, P. (1995): "Animación sociocultural de personas mayores", *Revista Española de Geriatría y Gerontología*, **30**(3), 205-209.
- Hamilton, M. (1969): "Diagnosis and rating of anxiety", *British Journal of the Psychiatry*, **3**, 76-79.
- Havighurst, R. J. (1961): "Successful aging", *The Gerontologist*, **1**(1), 8-13.
- Hershey, D. A. eta Mowen, J.C. (2000): "Psychological determinants of financial preparedness for retirement", *The Gerontologist*, **40**, 687-697.
- Hilbourne, M. (1999): "Living together full-time? Middle-class couples approaching retirement", *Ageing and Society*, **19**(2), 161-183.
- Hinrichsen, G. A. eta Clougherty, K. F. (2006): *Gerontology: Exploring the Worlds of Older Adults*, American Psychological Association, Washington, DC.
- Hollis, L. (1998): "Sex comparisons in life satisfaction and psychosocial adjustment scores with an older adult sample: examining the effect of sex role differences in older cohorts", *Journal of Women and Aging*, **10**(3), 59-77.
- Kalish, R. (1991): *La vejez: perspectivas sobre el desarrollo humano*, Pirámide, Madrid.
- Kim, J. E. eta Moen, P. (2001a): "Moving into Retirement: Preparation and Transitions in Late Midlife", in M. E. Lachman (arg.), *Handbook of Midlife Development*, Wiley, New York, 487-527.
- Krause, N. eta Borowsky-Clarck, E. (1997): "Funciones del apoyo social en la vejez", in J. Buendía (arg.), *Gerontología y salud*, Almagra, Madrid, 147-168.
- Lawton, M. P. (1975): "The Philadelphia Center Morale Scale: a revision", *Journal of Gerontology*, **30**, 85-89.
- López, J. J. (1992a): "La jubilación: opción o imposición social", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, **60**, 91-126.
- Madrid, A. J. eta Garcés de los Fayos, E. (2000): "La preparación para la jubilación. Revisión de los factores psicológicos y sociales que inciden en un mejor ajuste emocional al final del desempeño laboral", *Anales de Psicología*, **16**(1), 87-89.
- Martínez de la Iglesia, J.; Espejo, J.; Rubio, V.; Pérula de Torres, L. A. eta Albert, C. (1998): "Factores asociados a los síntomas psiquiátricos en población mayor de sesenta años (proyecto ANCO)", *Revista Española de Geriatría y Gerontología*, **33**(6), 331-339.
- Meléndez, J. C. (1996): "La percepción de posibilidades personales: ¿existen diferencias entre prejubilados y jubilados?", *Gerokomos*, **7**(18), 109-114.
- Midanik, L. T.; Soghikian, K.; Ransom, L. J. eta Tekawa, I. S. (1995): "The effect of retirement on mental health and health behaviors: The Kaiser Permanent Retirement Study", *Journals of Gerontology*, **50B**(1), 59-61.
- Moen, P.; Field, V.; Quick, H. E. eta Hofmeiser, H. (2000): "A Life-Course Approach to Retirement and Social Integration", in K. Pillemer; P. Moen; E. Wethington eta N. Glaswov (arg.), *Social Integration in the Second Half of Life*, The Johns Hopkins University Press, Baltimore, 75-107.
- Montón, C.; Pérez-Echeverría, M. J. eta Campos, R. (1993): "Escalas de ansiedad y depresión de Goldberg: una guía de entrevista para la detección del malestar psíquico", *Atención Primaria*, **12**, 345-349.
- Montorio, I. (1994): *La persona mayor. Guía aplicada de evaluación psicológica*, INSERSO, Madrid.
- Moragas, R. (1991): *Gerontología Social*, Herder, Bartzelona.

- Muñoz, T. eta Alix, M. C. (2002): "Psicología del envejecimiento e intervención psicosocial", T. Muñoz (arg.), *Psicología del envejecimiento*, Pirámide, Madril, 19-28.
- Mutchler, J. E.; Burr, J. A.; Massagli, M. P. eta Pienta, A. (1999): "Work transitions and health in later life", *Journals of Gerontology*, **54B**(5), 252-261.
- Pfeiffer, E. (1975): "A short portable mental status questionnaire for the assessment of organic brain deficit in elderly patients", *Journal of the American Geriatrics Society*, **23**, 433-441.
- Pinquart, M. eta Sörensen, S. (2001): "Gender Differences in Self-Concept and Psychological Well-Being in Old Age. A Meta-Analysis", *Journals of Gerontology*, **56B**, 195-213.
- Rosenkoetter, M. eta Garris, J. (2001): "Retirement planning, use of time, and psychosocial adjustment", *Issues in Mental Health Nursing*, **22**(7), 703-722.
- Rosenkoetter, M.; Garris, J. eta Engdahl, R. (2001): "Postretirement use of time: Implications for preretirement planning postretirement management", *Activities, Adaptation and Aging*, **25**(3-4), 1-18.
- Shaw, W. S.; Patterson, T. L.; Semple, S. eta Grant, I. (1998): "Health and Well-Being in Retirement", in M. Hersen eta V. B. Van Hasselt (arg.), *Handbook of Clinical Geropsychology*, Plenum Publishing Corporation, New York, 383-410.
- Smolak, L. (1993): *Adult development*, Prentice-Hall, New Jersey.
- Sterns, H. L. eta Hurd, J. (1999): "Work, Leisure and Retirement", in J. C. Cavanaugh eta S. Krauss (arg.), *Gerontology. An Interdisciplinary perspective*, Oxford University Press, New York, 355-390.
- Szinovacz, M. E. (2000): "Changes in housework after retirement: A panel analysis", *Journal of Marriage and the Family*, **62**(1), 78-92.

